


## Agirrek badu orain bere egunkaria



### Joxe Azurmendi

Filosofoa

● Izena Joxe Mari zuen, Agirre. Haren ametsa, euskarazko egunkaria: beste asko bezala, bere ametsarekin joan zen mundu honetatik.

Gerra denboran bakarrik ezagutu da euskarazko egunkari bat. EGU-NA. 36koan (baina 37an). Hogeitik hogeitabost urte arteko jende gazteak egina bera ere. Joseba Andoni Agirre Lehendakariari eskerrak sortua. Tiro artean eta eztabaida artean. Marmar eta pozoin artean batez ere.

Kuriosoa bait da: euskarazko egunkari baten proiektuak beti problematika izan behar du nonbait. Sekula ez da baratzainaren zakurra falta: berak ezin sagarrak jan, baina ezta inori jaten utzi ere horratio!

Euskaltzale mordoska batek euskarazko egunkari baten lehenengo asmoa kaleratu zuen orduko, agertu ziren betiko maisuak eta zuhurak, objekzioz kargatuta, proiektuaren arriskuak erakusten, errezelok, ideia askoz hobeak. Zakur gaizki desimulatuaren zaungak. Euskarazko egunkariak 'debotoa' izan behar omen zuen. Neutrala. Alegia, 'bere' politikari ez ukitzea nahi zuten betiko zuhurrek: horri ohi bait deritzaio objektiboa izatea. Eta azkenean lortu egin zuten proiektuari porrot eragitea.

Zumaiako euskaltzaleen biltzarrean, denei erantzun zien Lizardik 1930ean. (Aspaldikoak da, beraz, kontua). Ordukoa da, Mitxelena dibertitzen zuen erantzuna: egunkaria, katolikoa bai, baina 'katoliko galtzaduna' izango zela, 'ez eleiz orria'.

Euskaraz egoteak ez dauka zergatik periodiko bat antzutu eta nortasun gabeko, eritzi eta politika gabeko, bihurtu. Dena dela, ez da ja euskarazko egunkari baten garrantzia errebindikatzeko ordua, ospatzekoa baino: badu orain urte bete, Agirrek bere egunkari-saltzaile Peperi euskarazko egunkaria eros diezaiokeela goizero. Metxak. Ireki eta, kiosko ondoan harro-harro barrutik gera daiteke orain, EGUNKARIArekin, munduko mudantzak jorratzen eta une berean irakurtzen ari denarena egiten Peperi.

Ba zein den Metxa? Nik aurten irakurri dizudan gauzarik politena. Eta aspaldian. Zoragarria benetan. 'Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak', Koldo Izagirrerena. Historioen asmaketa, narrazioa, estiloa, tipoa bera, situazioak. Gauzak iradoki eta gehiegi ez esan. Fenomenala. Irakurgai bezala eta literatura bezala. Hortxe gabilza agirretarrak gure komerietan.

Urteotan seguruena gure mundutxoan ez da ikaragarri hobetu, baina, gutxienez, Nikola Agirrek, Metxa deitzen diotenak, orain euskaraz eros dezake goizero EGUNKARIA. Goizero irakurtzen dut. Amorratio handiak eta poz handiak eragiten dizkit. Perfektua ez da. Baina zaungak zaunga, ETB baino mila aldiz hobea da, esaterako bai informatibo bezala eta bai euskararen lantze bezala. Euskaraz datorkit mundua periodikoan etxera. Hauxe da gurea: EUSKALDUNON EGUNKARIA. Nikola Agirrerena Egunkaria, Lizardiren ametsa.